

## Legea eta justizia

*Deia*, 1984-10-14.

Geure herria istilu gorritan bizi da azken hilabete hauetan.

Iskanbila hauen hazia orain urte gutxi batzuk ereina izan zen; geroztik, lozorroan zirudien, ez baitu herri xeheak egoera horren berri izan; baina orain gutxi lehen arazi dituztenak ez dirudite bat batean sortuak, aspaldi hartatik bizi ezkutu eta pozoinduaren ondorioa baizik. Egia esan, ezin dut sinetsi oraindik arerioaren erraietan bakarrik bizi zein uste osoa genuen pozoin ilun-beltz hori geure artean ibil daitekeenik, eta hala ere, aitortu behar dut; ezin dudala abertzale sentitzen diren alderdikideen artean gertatutakoak beste inola esplikatatu.

Hau da puntua.

Ni neu gertu nago, noski, demokrazia bidetik lortu den agintea legezko bezala ezagutzeko. Ezin ulertu dut, ordea, aginte moral horrek hemen eta han ezpataz bezala bere gorputzeko atalak berak, eta minik sentitu ez balu bezala, moz-pika ditzatekeenik; aitzitik, egindakoak indar berritu balu bezala, berean jarraitzeko prest dagoela dirudi. Ezin dut ulertu oraintsu, eta kalokan, geure aberriaren zazpitik hiru anai bildu garen bezain laster geure arteko zatiketa lanean abiatzeko jitea, eta batasun urri honen sinboloa. Alderdiaren golgotik eta bere eraginez birritan sorrarazi duen eta herriak hain gogoz onartu duen lehendakaria bota artean geratu ezineko azpikeria gaiztoa.

Honek ez du, geure Alderdiaren osasunik, ez indarririk, adierazten.

Osasunezko indarraren jabe denak, bai baitu amor emateko kemenik.

Batez ere, gure Herri triste hau kanpoko indarkeriaz zatikatua eta akabaturik gizalditan egon ondoren, batasun berriaren indarberritzeko pausoak ematen hasi besterik ez denean, amildegirako bidetik abiatu dela ikusten dugunean. Eta objetiboki hau neurritu nahi duenak begira beza nor dagoen geure zatiketaren alde. Zer gaiztakeria egin ote dugu, bada, Espainiako eskuin beltzaren laguntzarako eginahalak irabazteko?

Hara, beraz, neuk nire buruari egin diodan galdera xumea.

Legea, baita demokratikoki ezarria ere, ez da, berez, itsu-itsuan justifikagarri. Gizona, kupidik gabe legepean jartzea izan daiteke berez zigorrik handiena; lege itsua zigor bihurtzen baita. Legearen bilaketa eta helburua justizia da, baina gizonari justizi hau egiteko lege horrek behar du burua, kriterioa, eta behar ditu kodigoa eta arautegiak erabiliaz gainera, bihotza; eta behar denean, baita urrikia ere.

Hau dena, eta gehiago, behar baitu gizonaren legeak gizonari justiziaren pakea ematen ahalegin osoa egiteko.